

EITBk solaskideen hizkuntza errespetatuko du adierazpenetan

CARSOA BIDASOKO HITZA



EITBKO KAZETARIEK garbi adieraziko diote solaskideari euskara hutsean egin dezakeela, gaztelaniaz, edo bietara. EITBren oharraren arabera, ikus-entzuleek begi onez hartuko dute euskarari leiho bat irekitzea gaztelaniazko kateetan.

Alegia, telebista kateetako edo irrati-tako kazetariak adierazpen eske aritzen direnean solaskideak berak esango du zein hizkuntzatan egin nahi duen, ala bietara egin nahi duen. EITBk zabalduko oharrean

dioenez, irratia edo telebista bera arduratuko da azpidatziak edo kazetariaren adierazpenak baliatzeaz, entzuleak inolako informazio galararik izan ez dezan. ETB2n, Radio Euskadin eta Radio Vitorian euskarazko adierazpenek izan dezaketen presentzia ari dira hori diotenean.

Euskalgintzak behin baino gehiagotan eskatua zion EITBri hizkuntza hautua errespetatzeko, eta gaztelaniaz ari diren kateetan ere euskarazko adierazpenak egiteko aukera onartzeko.

2014an ekimena Lea-ArtiBAI Euskarari elkarteak eta UEMAK bultzatu zuten. Ondoren, Urola Kosta eskualdea batu zitzaion. 2015eko apirilean, kirol eta kultur munduko hainbat kidek egin zuten eskaria, besteak beste, Andoni Egaña, Pako Aristi, Itziar Ituño, Gaizka Garitano, Aitor Gorosabel, Ramon Agirre, Mikel Markez, Amets Arzallus, eta Iñaki Artolak.

Jabi Lauzurika hil da



BILBO HIRIA

Uztailaren 4an hil zen Jabi Lauzurika ezustean. Arrosan (Nafarroa Beherea) mendi buelta ematera aterata.

Durangarra zen sortzez eta Bilbon bizitzen. Euskalgintzan eta bertso munduan oso ezaguna zen Lauzurika, batik bat Bilbo inguruan. Bizkaiko hiriburuko Kafe Antzokiaren eta berau kudeatzen duen Zenbat Gara elkartearen sorreran hartu zuen parte. Azken urteetan, Gabriel Aresti euskaltegiko irakaslea zen eta Bilbo Hiria Irratiko esataria ere bai. Potojorran bertso eskolako kidea ere bazen.

Uztailaren 9an omenaldia egin zioten Kafe Antzokian.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Eta greziar intsumisioa zapalkuntza osora zabalduko bagenu?

ERREFERENDUMEAN ezezkoak irabazi ondoren, Greziako herritarrek intsumisio lezio ederra eman digute. Nazioarteko Diru Funtsak, Europako Banku Zentralak eta Europako Batzordeak inposatu nahi dituen erreformei planto egin diete. Instituzio horiek osatzen dute Troika, inork aukeratu ez duen erakunde antisozial eta antidemokratikoa. Greziako herriak gainerako europarroi eta munduari erakutsi digu xantaiari ez zaiola men egin behar eta ez dela beldurrik izan behar. Jendartean izua zabaldu nahi izan zuten nola edo hala baiezkota lortzeko, baina greziarrak giza duintasunarekin kontsekuente izan dira, eta nahiago izan dute euren buruen jabe izan Troikak ordezkatzeko duen kapitalismo krudelaren aurrean belaunikatzea baino. Ez da harritzekoa, erakunde horrek milioika lagun eraman baititu langabeziara, pobrezia eta bazterketa sozialera, eta suizidioak ere eragin ditu horrek. Hemendik aurrerako bidea ez da erraza izango. Troika umiliaturik sentitu da eta ez die barkatuko, aurkituko dituzte moduak mendekurako. Baina Troikak ere ez

du erraz izango, ikusi baitu herri oso bat altxa dela erresistentzia aktiboa egiteko. Kapitalaren instituzioek beharrezkoa dute zorra kobratzea, zati bat kitatu eta denbora gehiago emanda ere.

Gainerako europarrok eta munduak ondo egingo genuke greziar intsumisioa zapalkuntza osora zabalduko bagenu: ekonomikoa, soziala, nazionala, lan arloko, sexuari dagokiona... Arlo guztietan landu beharko genuke intsumisioa, eta giza eskubideak errespetatzen ez dituen sistema ororen aurrean zutik jarri beharko ginatke. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna errespetatzen ez dela? Bada intsumisioa. Azken batean, merkatarien eta finantza espekulatuzaileen Europari ezetz esatea litzateke, horiek baitira gure jendartean dagoen desberdintasun sozialaren sortzaileak. Intsumisioa egin beharko genieke halako Europa defendatzen duten gobernu eta erakunde guztiei.

Juan Mari Arregi